

BARREN

Astekaria



AZTERKETA
soziologikoa
1995



LANAREN EGILEA: Ainhoa Azkarate

LAGUNTZAILEA: Elgoibarko Izarra

1995eko maiatzean

ELGOIBAR

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	1
2.- HELBURUAK	5
3.- METODOLOGIA	6
3.1.- SARRERA	7
3.2.- BARREN JASOTZEN DUTENAK	8
3.2.1.- AZTERKETA TEKNIKOA,	8
3.2.2.- INFORMAZIOAREN BILKETA	9
3.2.3.- LANDA LANA	9
3.3.- LAGINA	10
3.3.1.- LAGINAREN TAMAINA ..	10
3.3.2.- ERABILITAKO LAGIN MOTA	12
3.3.3.- LAGINAREN ERROREA ETA KONFIDANTZA MAILA	15
3.3.4.- TRATAMENDU INFORMATIKOA	15
3.4.- MENDAROKO INKESTA ETA BARREN JASOTZEN EZ DUTENAK	16
4.- INKESTEN AZTERKETA	46
4.1.- BARRENen IRAKURLEGOA	46
4.1.1.- IRAKURLEAREN PERFILA	46
4.1.2.- BARRENEN IKUSPEGI OROKORRA	62
4.1.3.- AZTERKETA ATALEZ ATAL	67
4.1.4.- GEHIGARRIAK	79
4.1.5.- ASTEKARIAREN IMAGINA	83

4.1.6.- INFORMAZIO LOKALA ..	84
4.1.7.- EUSKARA	86
4.1.8.- FINANTZIAZIOA	91
4.1.9.- NEUTRALITASUNA.....	94
4.1.10.- PUBLIZITATEA	95
4.2.- MENDAROKO INKESTA ETA BARREN JASOTZEN EZ DUTENAK	97
5.- IDEIA NAGUSIEN BILDUMA	101
6.- ONDORIOAK	116
7.- BIBLIOGRAFIA	117
8.- AIPAMENAK	118

1.-SARRERA

Oro har esan daiteke, prentsa lokala, edo eskualde prentsa ugaltzen doala, eta eredu zehatz bat nagusitzen ari dela, eredu honek ardatz nagusi batzu ditu.

Batetik doan banatzen da eta honi esker orain arte zuen zabalkunde urriaren gainditzea eta esparru zabalagoetara iristea lortu du.

Bestetik finantziarioa dela eta, konbinatzen diren diru iturriak publizitatea eta erakunde publikoetatik datozenak dira.

Maiztasunari dagokionez, gehienak maiztasun azkarrekoak dira, astekariak, amabostkariak, hilabetekariak,...

Ikuspegia ere aldatu dela somatu daiteke, orain arte euskal prentsa euskararen aldeko militantziak eragindakoa eta betiko euskaltzaleei zuzendutakoa izan da. Orain ikuspegi hori aldatuz doa, helburua ez da betiko euskaltzaleek irakurtzea baizik eta sekula euskaraz irakurri ez duen jendearentzat produktu erakargarria egitea.

Guzti honi antolakuntza berri bat gehitu behar zaio, enpresa moduko edo antzeko egitura berria, baliabide tekniko informatikoetan oinarritutakoa.

Gaur egungo prentsa lokalak, marginala izateaz ez ezik, gizartean status bat duen produktua dugu. Gainera prentsa lokalak hurreko informazioa eskaintzen du eta faktore honek bere potentzialitatea nabarmentzen du.

Instituzioek herri-aldizkari hauen gauzatzean izan duten inplikazioa ere azpimarratzekoa da.

Beraz ikusi ahal dezakegun bezala, euskal herri komunikabideen ugalketa fenomeno hau berria da. Arrasate Press izan zen fenomeno honen aintzindari eta bere inguruan, bere eraginez sortzen ari dira aldizkari berriak. Fenomeno arrakastatsu hau zenbait lekutara zabaldu da eta hau dugu "elgoiBARREN" astekariaren kasu zehatza.

Ia bi urtetako ibilbidea egin da gero, bere buruaren azterketa bat beharrezkoa dela pentsatu du. Kontutan hartu behar da BARREN astekariak euskal komunikabide izan nahi duela, hau da inoiz euskaraz irakurri ez dutenen artera heltzea du helburua. Euskal hizkuntzaren normalizazio bideari ekitea.

Azterketa hau burutzeko, arlo desberdinak izan dira aztergai. Lehenengo irakurlearen perfila marraztu nahi izan da.

Astekariaren imagin orokorra eta atalez-atalekoa landu da irakurketaren maiztasun eta eritziaren ikuspegitik.

Herri komunikabideek, prentsa lokalak betetzen ez duen hutsunea betetzera datorrenez informazio lokalaren egoera eta irakurlegoaren eritzia jaso izan nahi da.

Euskara maila oso arlo garrantzitsua dugu, astekariaren bideragarritasuna baldintzatzen duelako eta lehen aipatu bezala irakurlegoa euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duelako. Honez gain, astekariak erabilitako euskara biztanleriaren mailara egokitu behar delako.

Astekariak hedadura unibertsala duenez jomuga, irakurlegoak somatzen dien neutritasun edo joerak ikertu dira ere.

Irakurlearen "aportazio" kontutan izan dira, gairik arindu kendu edo eta indartu, sortuko zituzkeen itaunduz.

Hasiara batean aipatu bezala. Publizitatea eta udala dituzte herri aldikariek diru iturri sarrienak. Beraz publizitate honi eskaintzen zaion arreta ikertzen saiatu gara.

Kontraezarpen modura. BARRENen irakurleei luzatutako inkestaren gain beste inkesta bat egin da BARREN irakurtzen ez dutenei.

Irakurketa ezaren zargatia topatu ahal nahian, eta astekariaren aurrean mantentzen duten jarrera ikusteko.

Azkenik eta arlo guzti hauek barnebildun, ondorioekin egiten dugu topo.

2.- HELBURUAK

Azterketa honen helburu nagusia zera izan da:

*elgoiBARREN ASTEKARIAK HERRIAN DUENEZARPENA ETA
HARRERA NEURTZEA.*

Horretarako beste helburu zehatzagoetaz baliatu izan da:

*- Astekariak merezi duen iritzia eta irakurketa maiztasuna
aztertzea, bai orokorrean bai atalez atal.*

- Irakurlearen perfil bat egitea.

- Ez irakurleen, zergatiak aztertzea.

*- Arlo garrantzitsu batzuen egoera aztertzea, alegia, euskara,
neutraltasuna, informazio lokala, finantziarioa.*

3.- METODOLOGIA

FITXA TEKNIKOA

Esparrua: Elgoibar

Unibertsoa: "Barren" jasotzen duen Elgoibarko biztanleria = 2.375 etxebizitza

Eremu ikerketaren data: 1994ko Abendua

Laginaren tamaina: 224 etxebizitza

1. Zonaldea: 40

2. Zonaldea: 51

3. Zonaldea: 50

4. Zonaldea: 42

5. Zonaldea: 30

6. Zonaldea: 17

Erabilitako lagin mota: Proporzional lagin geruzatua Zonaldea, sexua eta adinaren arabera.

Laginaren errorea: - %5.6, %95 konfidantza maila baterako

Hipotesia: $p = q = 50$

Landa lanaren egileak = Elgoibarko inkestatzaileak

Tratamendu informatikoa: SPSS

Esparrua: Elgoibar eta Mendaro

Unibertsoa: "Barren" jasotzen ez duen Elgoibarko biztanleria eta Mendaro

Landa lanaren egile data: 1994ko Abendua

Laginaren tamaina: 41 etxebizitza

Erabilitako lagin mota: Zorizko lagin bakuna

Tratamendu informatikoa: SPSS

3.1.- SARRERA

Erabilitako metodologiaz hitzegiterakoan bereizketa bat egin behar dut.

Ikerketa honetan hiru inkesta desberdin erabili da. Lehenengoa eta garrantzitsuena, "Barren" jasotzen duen biztanleriari zuzendua egon da eta adierazgarritasuna %95 konfidantza maila batean zihurtatua. Gaztira 224 inkesta pasatu dira.

Beste bi inkestek, 20ko lagina dute bakoitzak eta, beraz, ezin dezakegu esan estatistikoki adierazgarriak direnik. Bata Mendaron pasatu dena da. Inkesta printzipioz, lehenengoa bezalakoa da, galdera batzuk aldatuz. Inkesta honen arrazoia zera da, Mendarori buruzko gehigarri bat dagoela eta mendarotarren iritzia jakin nahi izan dela.

Azkenik, hirugarren inkesta, Barren jasotzen ez duen Elgoibarko biztanleriari zuzendua. Inkesta honen helburua, lehenengoakin kontraste bat egitea izan da.

3.2.- METODOLOGIA: BARREN JASOTZEN DUTENAK

3.2.1. Azterketa teknikoa: Ezarritako helburuak lortu eta hipotesiak baieztatu edo ezeztatzeke, erabili den teknika, zundaketa estatistikoa izan da. Ehun galderaz osatutako inkesta baten bidez lortu izan da informazioa. Galdera hauetatik, 89 galdera itxiak izan dira, hau da, aukera anitz daude erantzuteko eta irakurlegoak bat aukeratu behar du. Beste 11 galderak irekiak izan dira, hau da, irakurlegoak nahi duen erantzuna luzatu ahal izan du.

ESPARRUA: Ikerketa honen esparrua, Elgoibarko herria dugu.

UNIBERTSOA: Unibertsoa, bestalde, "Barren" astekaria jasotzen duen Elgoibarko biztanleria dugu. Hau da, beraz, guri dagokigun aztergai multzoa.

3.2.2. Informazioaren bilketa:

A. DATU-BASEA: Erabilitako datu-basea, Barren-en harpidetzaren zerrenda izan da. Datu hauek etxebizitzaren arabera daude. Barren aldizkaria etxebizitza bakoitzeko bat bidaltzen denez, ez dugu pertsonaren araberako ikerketa egin, etxeak suposatzen duen multzoaren arabera baizik. Beraz, unibertsoa etxebizitzek osatzen dituztenez, lagina ere honelakoa izan da.

3.2.3. Landa-lana: *Inkesta diseinatu ondoren, biztanlearekiko egokitze prozesu bat burutu zen. Galderak ulergarriak izan zitezten eta anbigutasun posibleak ezeztatzeko asmoarekin "muestra-piloto" bat egin zen. Geneuzkan tipologia guztietako inkestatuei inkesta pasatu ondoren, zuzenketak egin ziren eta ondoren baliozko inkestak bete ziren.*

B.1- Landa lana 1994ko abenduan burutu zen.

B.2- Landa lanaren egileak: "Barren"ek aukeratutako 5 inkestatzailek pasatu zuten inkesta, egilearen zuzendaritzapean.

B.3- Nola gauzatu zen kanpu lana: Aldez aurretik aukeratuta zeuden etxebizitzetara deitu zen, inkesta erantzuteko prest zeuden jakiteko, baietza ematerakoan eta etxe bakoitzean zein tipologiako sujetua behar zen jakin da, inkestatzaileak etxeetara urbiltzen ziren.

3.3. Lagina

3.3.1.- LAGINAREN TAMAINA: Laginaren tamaina, 224 etxebizitzakoa izan da. Esparrua, Elgoibar, 6 zonaldeetan banatu dugu, hauek astekariaren banatzaileak dituzten zonalde desberdinak direlarik. Laginaren tamaina unibertsoaren %10 denez, 2375 etxebizitzetatik 224 aukeratu dira. Zonalde bakoitzean ere, zeuden etxebizitzaren %10a aukeratu da. Honako hau da laginaren distribuzioa.

1. ZONALDEA Lagina: 40

Juan Mugerza
S. Roke
Arregitorre
Erretxindi

2. ZONALDEA Lagina: 51

S. Franzisko
Urasandi
Kalamua
Morkaiko

3. ZONALDEA Lagina: 50

Estarta
S. Ana
Ubitarte
A. Arrillaga
S. Ingazio
Giza eskubide enparantza
Trenbide kalea
Aitz bizkar
Autonomia

4. ZONALDEA Lagina: 42

S. Bartolome
Errosario
Foruen plaza
S. Klara
Nafarroa enparantza
A. Agirre
P.M. Urruzuno
Artekalea
Ezenarro

5. ZONALDEA Lagina: 30

P. Muguruza
Artetxe
I. Karkizano
Ermuaran bide
S. Pedro kalea
Upai zaharra

6. ZONALDEA Lagina: 17

S. Migel bailara
S. Pedro bailara
S. Lorentzo bailara
S. Roke bailara
Altzola
Urruzuno bailara

5.3.2. ERABILITAKO LAGIN MOTA: Lagin geruzatu proportzionala, zonaldea, sexua eta adinaren arabera.

Zonalde bakoitzean lagina ezarrita neukanean, etxebizitza bakoitzean ezaugarri konkretuetako sujetoa aukeratu beharra zegoen, bestela beti ezaugarri berdinak errepikatzeko arriskua bait zegoen. Beraz, aukeratu nituen aldagaiak, zonaldea, sexua eta adina izan ziren.

Zonalde bakoitzean Elgoibarko populazioaren banaketa aztertutuen sexua eta adina kontutan harturik.

Adin taldeak honako bost taldetan banatu nituen:

0 - 15

16 - 30

31 - 45

46 - 60

> 60

Beraz kuotak ezartzerakoan erabili dugun logika, zonalde bakoitzaren populazio-banaketa-erabileraren proportzionaltasuna gordetzea izan da. Adibidez, 3. zonaldean honako banaketa egin dugu:

SEXUA	ADINA					GUZTIRA
	0-15	16-30	31-45	46-60	>-60	
EMAKUMEA	134	300	220	242	304	1200
GIZONA	129	301	248	216	262	1156
GUZTIRA	263	601	468	458	566	2356

2356 pertsona ----- zonaldeko %100 badira
 263 pertsona ----- zonaldeko %?
 (0-15 tartekoak)

$X = \%11.6a$ ematen digu borobilduz %11 dira 0-15 urte tarakoak

3. Zonaldean lagina 50 dela kontutan harturik
 lagina 50 ----- %100 bada
 Zenbat pertsona hartu ----- %11
 (0-15 tartekoak)

$X = 6$ pertsona

%50 dela ikusten dugunez 0-15 urte bitarteko 3 mutil eta 3 neska hartzen dira.

1. ZONALDEA

ADINA	EMAKUME	GIZONA
0 - 15	4	4
16-30	5	5
31 - 45	6	5
46 - 60	3	4
> 60	3	2

2. ZONALDEA

ADINA	EMAKUME	GIZONA
0 - 15	5	4
16 -30	6	6
31- 45	6	7
46- 60	5	4
> 60	4	4

5. ZONALDEA

ADINA	EMAKUE	GIZONA
0 - 15	1	2
16 - 30	4	4
31 - 45	3	3
46 - 60	3	3
> 60	4	3

3. ZONALDEA

ADINA	EMAKUME	GIZONA
0 - 15	3	3
16-30	6	6
31 - 45	5	5
46 - 60	5	5
> 60	6	6

4. ZONALDEA

ADINA	EMAKUME	GIZONA
0 - 15	2	2
16 -30	6	5
31- 45	4	4
46- 60	4	4
> 60	5	6

6. ZONALDEA

ADINA	EMAKUME	GIZONA
0 - 15	1	1
16 - 30	2	2
31 - 45	2	2
46 - 60	2	2
> 60	1	2

3.3.3. LAGINAREN ERROREA ETA KONFIDANTZA MILA: %95 konfidantza maila baterako eta $p=q=50$ hipotesia onartuz (ezberdintasun handiena) honako errorea daukagu ikerketan:

$$E = \frac{K \times p \times q}{n} \quad E = - \% 5,6$$

3.3.4. TRATAMENDU INFORMATIKOA: Ikerketa honetan erabilitako tratamendu informatikoa SPSS izan da.

3.4.- MENDAROKO INKESTA ETA BARREN JASOTZEN EZ DUEN ELGOIBARKO BIZTANLERIA

Guztira 40 inkesta besterik ez direnez, eta estatistikoki adierazgarritasun gutxikoak direnez, metodologia bateratuaz ikusiko ditugu.

ESPARRUA: Mendaro eta Elgoibar

UNIBERTSOA: Mendaro eta "Barren" jasotzen ez duen Elgoibarko biztanleria.

LANDA LANAREN DATA: 1994 Abendua

AZTERKETA TEKNIKOA: Kasu bietan, inkesta izan da erabili den bidea. Mendaroko inkestaren kasuan 99 galderek osatzen dute galdetegia. Hauetatik 11 irekiak dira eta 87 itxiak.

Elgoibarkoan, ordea, galdetegia 10 galderaz osatua dago.

LAGINAREN TAMAINA: 20 inkesta bete dira bakoitzean.

ERABILITAKO LAGIN MOTA: Aleatorio bakuna.

	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATEK JASOTZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
1. ZONALDEA	JUAN MUGERZA	40	29	%72.5
	S. ROKE	262	210	%80.15
	ARREGITORRE	175	116	%66
	ERRETXINDI	92	57	%62

	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATEK JASOTZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
2. ZONALDEA	S. FRANZISKO	292	226	%77
	URASANDI	348	224	%64
	KALAMUA	120	76	%63
	MORKAIKO	6	1	%16

	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATEK JASOTZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
3. ZONALDEA	ESTARTA	153	69	%45
	S. ANA	353	222	%63
	UBITARTE	102	64	%63
	A. ARRILLAGA	89	55	%62
	S. IGNAZIO	80	65	%81
	G.ESKUBIDE ENP.	12	9	%75
	TRENBIDE KALEA	32	23	%72
	AITZ BIZKAR		1	
	AUTONOMIA	1	6?	

4. ZONALDEA	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATEK JASOTZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
	S. BARTOLOME	121	81	%67
	ERROSARIO	146	121	%83
	FORUEN PLAZA	12	14	%100
	S. KLARA	143	85	%59
	NAFARROA ENP.	---	14	---
	A. AGIRRE	7	18	---
	P.M. URRUZUNO	95	54	%57
	ARTEKALE	24	9	%37.5
	B. EZENARRO	65	34	%52


5. ZONALDEA	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATEK JASOTZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
	P. MUGURUZA	385	187	%49
	ARTETXE	70	34	%49
	I. KARKIZANO	60	22	%37
	ERMUARAN BIDE	74	51	%67
	S. PEDRO KALEA	59	16	%27
	DEBA KALEA	13	---	---
	UPAITZ ZAHARRA	15	---	---

	KALEA	ZENBAT ETXE BIZITZA	ZENBATE K JASOT ZEN DUTE BARREN	BARREN JASOTZEN DUTEN ETXEEN %
6. ZONALDEA	S.MIGEL BAILARA	43	14	%33
	S.PEDRO BAILARA	26	14	%54
	S.LORENTZO BAILA.	56	31	%55
	S.ROKE BAILARA	20	11	%55
	URRUZUNO BAILARA	12	4	%34
	ALTZOLA	---	---	---

4.- INKESTEN AZTERKETA

4.1.- BARRENEN IRAKURLEGOA

4.1.1.- IRAKURLEAREN PERFILA





Lehenengo eta behin argitu behar da lan hau multzokako lan bat dela, etxebizitzaren arabera, beraz, etxebizitza bakoitzean zenbat pertsona bizi diren argitu behar dugu. Banaketa honekin, ikusi ahal dezakegunez gehien ematen den kasua, %35,7, lau pertsonako etxebizitza da, bigarren, %28,1, 3 pertsonako etxebizitza eta

adierazgarria den azkena, %15,2, 5 pertsonako etxea.

Bataz-beste etxe bakoitzean 3,67 pertsona ditugula esan dezakegu.

Etxe bizitza bakoitzean bataz beste zenbat pertsona bizi diren ikusi ondoren, hoietatik zenbat diren euskaldunak eta zenbatek irakurtzen duen aldizkaria galdetu dugu. Galdera hauen erantzunak alderatuz honako emaitzak ditugu:






Galdera bi hauen emaitzak ikusiz, biak banaketa berdintsua ematen dutela esan genezake.


Zenbatek irakurtzen duen BARREN etxean begiratzerakoan %24,6ak 3 pertsonak irakurtzen duela dio, %23,7ak bi pertsona eta %22,8ak lau pertsona. Irakurle bakarreko etxeak edo 5ekoak %22 dira guztira. Bataz beste, etxe bakoitzean 3,073 pertsonak irakurtzen dute.

Etxebizitza bakoitzean zenbat euskaldun dagoen ikusterakoan honako emaitzak ditugu: %29,9 kasutan 3 pertsona dira euskaldun, %26,3tan 4 pertsona eta %17tan 2 pertsona. Bataz-beste 3,068 dira euskaldunak.

Lehen aipatutakoa kontutan izanik, bataz beste, etxebizitza bakoitzean 3,67 pertsona baditugu eta hoietatik, bataz beste, 3,073k BARREN irakurtzen badu, harpidedun direnen artean, etxeko ia 4 pertsonetatik 3k BARREN irakurtzen du. Eta bataz beste, euskaldun kopurua etxebizitzako 3,068 baldin bada, harpidedun direnen artean etxeko euskaldun guztiek BARREN irakurtzen dute.

BARRENen irakurletoa, sexuari dagokionez nahiko berdintsu banatzen baldin bada ere, emakumezkoak nagusi dira (%52,2), gizonezkoak %47,8 diren artean.





- Iturria- Udaletxea, poblazioaren distribuzioa adinaren arabera 1.994.

BARRENen irakurleak adinaren arabera sailkatzerakoan, Elgoibarko biztanleria osoaren banaketa kontutan hartu behar dugu. Eta honakoa da (adin taldea handienetik txikienera):

16 - 30 urte bitartekoak biztanleriaren %24,6 dira.

31 - 45 urte bitartekoak biztanleriaren %22,5 dira.

60tik gorakoak biztanleriaren %19,9 dira.

46 - 60 tartekoak biztanleriaren %19 dira.


0 - 15 tartekoak biztanleriaren %13,8 dira.

Datu hauek kontutan harturik esan behar BARRENen irakurle gehiengoak 16-30 urte bitartekoak direla (%28,6) biztanleriaren adinaren media gainditzen dutelarik (%24,6). Hurrengo adin talde aipagarriena 31-45 bitartekoa dugu (%22,8), honek ere biztanleriaren media gainditzen duelarik (%22,5).


Orokorrean populazioaren banaketa kontutan harturik pertsona helduak dira, gutxien irakurtzen dutenak: %17,4.

Irakurketa adinaren arabera aztertzerakoan, nahitaezko gauza bat hartu behar da kontutan, irakurketa hizkuntza alegia. Irakurgaiak euskaraz izateak irakurlearen perfila jende gaztea izatea azaltzen du.

Egoera zibilar dagokionez, pertsona ezkonduak (%50,4) dira BARREN gehien irakurtzen dutenak. Hala ere, ezkongabeen presentzia ere adierazgarria dugu (%40,6) gazteak direlako irakurle nagusienak.



Barrenen irakurlegoa eta Elgoibarko biztanleria ikasketa mailaren arabera. Irakurlearen ikasketa maila azatertzerakoan, banaketa hau dugu:




Iturria-EUSTAT 1992

- 1- Eskolarik ez*
- 2- Lehen mailako ikasketak*
- 3- Lanbide heziketa*
- 4- Batxilergoa*
- 5- Unibertsitari ikasketak*

Zalantzarik gabe, BARRENen irakurleen artean, lehen mailako ikasketak dituen irakurlea da nagusi (%44,6). Lanbide Heziketa (%16,1), Batxilergoa (%13,8) eta Unibertsitari ikasketak (%15,2) dituztenen artean ezberdintasun asko ez dagoelarik.


Datu hauek, Elgoibarko biztanleriaren ikasketa maila orokorraz alderatu ezker, BARRENen irakurlegoaren ikasketa maila orokorrean biztanleriarena baino hobea dela esan dezakegu. Eskolarik gabekoak irakurlegoaren artean %5,4 diren artean, biztanleriaren artean %16,29koa da. Lehen mailako ikasketak dituztenak irakurleen artean talde nagusia bada ere, biztanleriarekin alderatuz 11,38 puntu txikiagoa da, ezberdinketa hau Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Unibertsitari ikasketak dituztenak gehiago direlako.



- 1- Langile autonomoak
- 2- Langile kualifikatuak
- 3- Kualifikatu gabeko langileak
- 4- Langabezian
- 5- Etxeko lanak
- 6- Jubilatuak
- 7- Ikasleak


Sailkatzerakoan, inkestatzaileak subjektiboki egin du. Hau dela eta, ikusten dugu bere burua langile ez kualifikatutzat dutenak oso talde txikia dela, % 1,3 alegia.

Langile kualifikatuena (%27,2) da irakurle tipo nagusia (baina kualifikatu gabeko langile asko talde honetan egon daitezkelakotan) eta ikasleak (%23,2) horiekin parekatuko nituzke. Erdi-goian mailan langile autonomoak %16,1 eta etxeko lanak egiten duen jendea %15,6 ditugu.



BARRENen irakurlearen perfila kokatu nahiean, esan irakurlea betidanik Elgoibarren bizi den pertsona dugula, %74,6, eta honi 20 urte baino gehiago Elgoibarren bizitzen daramatenak gehitzen badizkiogu %93,7 batekin aurkitzen gara. Guztiz adierazgarria den datua, beraz.

Irakurlearen euskara maila neurtzean, 5 tipologia ezberdin erabili da.



1- %52,2 euskaldun zahar alfabetatugabea

2- %28,1 euskaldun zahar alfabetatua

3- %5,8 euskaldun berria

4- %4,9 ia euskalduna


5- %2,7 erdalduna

5- %6,2 Missing Values

Irakurlegoaren erdia beraz, euskaldun zahar alfabetatugabea dugu %52,2, eta euskaldun zahar alfabetatuak %28,1 dira. Euskaldun berriak (%5,8) eta ia euskaldunak (%4,9) multzo parekoak dira.

Kontutan hartzekoa da euskaldun zahar alfabetatugabeen multzoa dugula nagusiena, honek dakarren ondorio guztiekin (euskaraz ulertzeko zailtasuna, artikuluen luzera, etab.).

Azkenik, irakurlearen joera politikoa azaldu nahian, hona hemen bakoitzak nori bota dion azken hauteskundeetan.




Aukera nagusia EE/ED %45,1 eta Missing Values %27,7 izanik, beraz, %25ak bakarrik erantzun du galdera hau adierazgarritasuna asko murriztuz. Alderdi nagusia PNVa dugu (%15,2), beste guztiek EA %4,9, HB %5,8, IU %0,9 diferentzia nabarmenez jarraitzen diotelarik.


4.1.2.-"BARREN" ASTEKARIAREN IKUSPEGI OROKORRA

Irakurlegoak BARRENi buruzko ikuspegi orokorra zein duen jakiteko asmotan, astekariaz oro har zein iritzi duten aztertu dugu. Lehenengo pausoa BARREN irakurtzen duten galdetu da eta %2,2 soilik, esan du ez duela BARREN irakurtzen.

Ondoren irakurketaren maiztasuna neurtu da. Hauek ditugu emaitzak:



Irakurketaren maiztasuna oso handia da; %79,5ak beti irakurtzen duela dio eta %9,4k askotan egiten duela. Beraz, %88,9ak ia beti irakurtzen du.



Iritzia neurtzerakoan, 5 aukera izan dituzte. Oso ona da mutur bat eta bestea oso txarra. Ia erdiak, %46,4, astekaria ONA dela dio, bigarren aukera hautatuena oso ona dela izan da, %41,5. Beraz, %87,9a oso ona eta ona bitarteko iritzia du batz-beste, ona dela diotenak gehiago badira ere.

Inork ez du uste astekaria oso txarra denik eta txarra dela diotenak %0,9 dira. Gutxietsitzeko kopurua da hori.

Irakurketaren maiztasun eta iritzi global hau aldagai independenteengandik (sexua, adina, egoera zibila, ikasketa maila, lan


iharduera, esukara maila) eraginda dagoen aztertu dugu. Hau da, ea gizona edo emakumea izateak ba al duen ezberdintasun esanguratsurik gehiago edo gutxiago irakurtzeko edo eta iritzia hobea edo txarragoa izateko.

Analysis of variance-en proba egin ondoren irakurketaren maiztasunean eta iritzian eragiten duten aldagaiak.

Irakurketaren maiztasun orokorra ez dago aldagai independente batengatik ere ez eraginda. Iritziaren kasua ez bezala.

Kasu honetan, iritzi bat edo beste azaltzeak Sexua eta Lan iharduerarekin zerikusia ikus daiteke. Beraz eritzi desberdin bat izateak bi aldagai hauek ezberdintasuna markatzen dute.

Irakurlegoak astekariaz zein ideia duen jakin ahal izateko, lau aukera eman zaizkio bat aukera dadin. Lau aukera hauek honako hauek dira: txisme kontalaria, denborapasa, herriko gaiei buruzko informatzailea eta herri komunikabidea.



1- Txisme kontalaria

2- Denbora pasa

3- Herriko gaiei buruzko informatzailea

4- Herri komunikabidea

BARREN %1,3k txisme kontalari bat dela eta %5,8 denborapasa bat dela pentsatzen duen artean, gehiengoak, %72,8ak eta besteekin alde asko duela, herriko gaiei buruzko informatzailea dela uste du. Herri komunikabidea eta herriko gaiei buruzko informatzailea azken finean bat badira ere, desberdinketa hau egin dut herri komunikabide hitzak subjektiboki seriotasun gehiago gehitzen duela dirudielako, eta gauza berdin baten gainean eskala bat eraikitzeko. Alde handia dago bien artean, agian herri komunikabide hitzari buruz daukagun ezjakintasunagatik, baina gauza da bien emaitzen batuketak %86,2 ematen duela.

4.1.3.- AZTERKETA ATALEZ ATAL

Atalez-atal eginiko azterketan ere, irakurketaren maiztasuna eta eritzia neurtu da. Izan ditugun emaitzak kontutan harturik, atalen sailkapen bat egin da. Gehien irakurtzen den ataletik gutxien irakurtzen denerate eta iritzi hobea merezi duen ataletik txarrenera.

IRITZI ONENETIK - IRITZI TXARRENERA


	OSO ONA	ONA	HALA NOLAKOA	TXARRA	OSO TXARRA
ETA ZURE USTEZ	39,4	53,4	2,4	0,5	0,5
ERRETRATU ZAHARRA	43,3	45,2	1,4		0,5
BATA ALA BESTEA	29,8	57,2	4,8		
ASTEAN ZECHAR	35,3	5,2	2,4		
KIROLA	30,8	>54,3	5,3		
GALDERAK, KEXAK ETA TXALOAK	29,4	52,9	4,3		
MOTZEAN KONTATZEKOAK	18,8	64,9	5,8		
KULTURA	24	56,3	3,8	0,5	
ASTE HONETAN	19,2	60,1	6,3		
BERBETAN	19,7	58,7	6,7	0,5	
MERKATU TXIKIA	28,8	47,6	4,3	1	1
GAZTAROA ARO EROA	20,7	59,1	3,4		
ESKUTITZAK	21,2	55,8	5,3		
ERREPORTAIA	11,1	67,3	6,3	0,5	
ENPRESETATIK BUELTAN	17,8	57,7	5,8		
GOGORATUZ	21,2	52,9	4,8	1	
ZENBAT BURU HAINBAT ABURU	14,9	50,5	12,5	0,5	
UDALETXETIK UDALERRIRA	14,9	55,8	5,3		
BERTSOTAN	18,3	49,5	5,3	0,5	
TXOKORIK TXOKO	19,2	44,2	4,3	0,5	0,5

GEHIEN IRAKURTZEN DEN ATALETIK - GUTXIEN IRAKURTZEN DEN ATALERA

	BETI	ASKOTAN	BATZUTAN%	GUTXITAN	INOIZ EZ
ETA ZURE USTEZ	84,3	8,6	2,9	1,3	
BATA ALA BESTEA	70	10,5	9	2,4	
ERRETRATU ZAHARRA	68,6	10	10	3,3	
ASTEAN ZEHAR	66,2	10,5	9	3,3	10,5
GALDERAK, KEXAK ETA TXALOAK	64,8	7,6	9,5	6,7	11,4
KIROLA	59	10	12,9	9	9
MOTZEAN KONTATZEKOA K	49,5	18,6	18,6	5,2	8,1
ASTE HONETAN	46,1	18,1	11,9	8,1	15,2
KULTURA	48,6	12,9	16,2	7,6	14,8
ESKUTITZAK	49,5	11,9	15,7	7,1	15,7
BERBETAN	45,2	15,7	18,6	6,2	14,3
GAZTAROA ARO EROA	50,5	12,9	11,4	8,1	16,7
MERKATU TXIKIA	52,4	9,5	12,4	7,1	18,6
ERREPORTAIA	34,3	20,5	26,2	6,2	12,4
GOGORATUZ	47,1	8,6	14,3	9,5	20
ENPRESETATIK BUELTAN	40,5	13,8	18,6	7,6	19,5
UDALETXETIK UDALERRIRA	38,1	15,2	15,2	9,5	21,9
ZENBAT BURU HAINBAT ABURU	32,9	13,3	20,5	12,4	21
BERTSOTAN	39	11	10	14,3	24,8
TXOKORIK TXOKO	38,6	8,6	11	11	30,5

Atal bakoitzeko emaitzen batz bestekoaekin, landutako grafikoak ditugu jarraian. Grafiko hauen helburua tendentziak ikustea da: ea postu batetik bestera ezberdinketa handiak ematen diren, barnemultzorik bana daitezkeen eta gehien eta gutxien irakurtzen diren atalak ezaugarri bateragarriak dituzten.

- ATALEN ERITZIA




Galdera honetan, aztertu nai izan dena atalen eritzia da. Gohian aukera desberdinak ditugu, eta atal bakoitzaren aldamenean atal bakoitzaren iritziaren media. 1,81 mediarekin eta ez gustikoena txokorik txoko 3,3 mediaz, beraz 1,5 punturen ezberdinketa dugu. Honek esan nahi du, eta zure ustez oso ona eta ona tarte bitartean kokatzen duela irakurlegoak, ona-tik gertuago badago ere. Txokorik txoko ordea, Hala-nolakoa eta txarra tarteko eritzia merezi du.

Esan behar da, lehenengo postuetan eta azkenengo postuetan ditugun atalen tendentzia antzerakoa dela.

Lehen hiru postuak betetzen dituzten atalen arteko diferentzia, batazbestekoak alderatuz nahiko nabaria da. Joera berdina somatu daiteke azken postuetan: udaletxetik udalerrira (2,87), bertsotan (2,94), txokorik txoko (3,3).

Erdiko postuetan, ostera, iritzi aldaketa ez dela hain nabarmena esan dezakegu.

- IRAKURKETAREN MAIZTASUNA



Irakurketaren maiztasunaz ari garenean, batzbestesko bat ere ez da 3 puntura heltzen (batzutan), hau da, denek diote batzutan baino gehiago irakurtzen dutela.

Irakurketaren maiztasunean ere, lehenengo postua, "Eta zure ustez" atalak betetzen du, 1,30eko batzbestekoa duelarik. Beti irakurtzen dela esan dezakegu. Gutxien irakurtzen den atala Txokorik

txoko da, 2,88 batzbestekoarekin (batzutan). Lehenengo eta azkenengo postuen artean, 1,58 puntuko ezberdintasuna dago. Ezberdintasuna, iritzien artekoek ematen duten berbera da.

Lehenengo postua eta azkenengoa, iritziari eta irakurketaren maiztasunari dagokionez, errepikatu egiten da. "Eta zure ustez" da gehien irakurtzen den eta atalik gustokoena. Txokorik-txoko gutxien irakurri eta desatseginena dugu.

LEHENENGO POSTUAK	
IRITZIA	IRAKURKETAREN MAIZTASUNA
Eta zure ustez	Eta zure ustez
Erretratu zaharra	Bata ala bestea
Bata ala bestea	Erretratu zaharra
Astean zehar	Astean zehar
Kirola	Galderak kexak eta txaloak

AZKEN POSTUAK	
ERITZIA	IRAKURKETAREN MAIZTASUNA
Gogoratu	Enpresetatik bueltan
Zenbat buru hainbat aburu	Udaletxetik udalerrira
Udaletxetik udalerrira	Zenbat buru hainbat aburu
Bertsotan	Bertsotan
Txokorik-txoko	Txokorik-txoko

Lehenengo 5 postuen eta azkenengo 5 postuen barne korrelazioa neurtu da, hau da, atal baten irakurketaren maiztasunaren mailak, atal horrek merezi duen iritzian, duen azalpen indarra, ehunekotan emanda. Azalpen indarrak gehien irakurtzen diren atalak eta gustokoenak direnen artean baita, egin dira. Eta gutxien irakurri eta ezgustokoenak direnen artean. Bi kasuetan bataz-beste %70eko mailakoa da azalpena. Beraz, pertsona batek atal bat gutxi irakurtzen duela dionean, normalean atalarekiko iritzia ez da ona izango, %70 kasutan.

Atalik irakurrienak eta iritzi hobekak dituztenak berdina direla ikusi ondoren zenbait ezaugarri bateragarri dituztela uste dut: laburtasuna, informazioaren urbiltasun nabaria (argazkiak, kaleko jende ezaguna), albiste ugari sakondugabeak.

Azken postuak, aldiz, gai sakonduak ditugu, irakurketa zailagoak.

Ondoren aldagai independenteei duten eragina atal desberdinen irakurketaren maiztasunean eta iritzian aztertu da. Azterketa hau burutzeko χ^2 eta "Analysis of variance" frogak erabili ditut.

Jarraian dagoen taula honek, zeintzuk diren aldagai independente eraginkorrak atal bakoitzean (irakurketaren maiztasuna eta bere eritzia bateratua daudela) azaltzen digu. Atal eraginak 20 ataletatik 12 dira.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU	ADINA	EGOERA ZIBILA	LAN IHARDUERA
ESKUTITZAK	ADINA		LAN IHARDUERA
GALDERAK, KEXAK ETA TXALOAK			LAN IHARDUERA
ERRETRATU ZAHARRA	ADINA		
ASTE HONETAN			LAN IHARDUERA
BERBETAN	ADINA		
BERTSOTAN			LAN IHARDUERA
UDALETXETIK UDALERRIRA	ADINA		LAN IHARDUERA
TXOKORIK TXOKO		EGOERA ZIBILA	
GOGORATUZ		EGOERA ZIBILA	LAN IHARDUERA
ENPRESETATIK BUELTAN	ADINA		LAN IHARDUERA
KULTURA			LAN IHARDUERA
GAZTAROA ARO EROA			LAN IHARDUERA


Adina eraginkorra den ataletan, ikusi da kasu guztietan ezberdintasuna markatzen duen azpimultzoa 0 - 15 urte bitartekoak direla.

Egoera zibilaren kasuan, ezkondegabeak dira ezberdintasuna markatzen dutenak.

Azkenik, lan iharduerari dagokionez, ikasleak dira azpimultzo ezberdinak.

0 - 15 urte bitartekoa, ezkondegabea eta ikaslea azpimultzoek markatzen dituzte ezberdintasunak irakurketaren maiztasun eta iritzian, kasu batzutan txarrerako, bestetan onerako, lehen ikusi den moduan.

4.1.4.- GEHIGARRIAK




1- BETI

2- ASKOTAN

3- BATZUTAN

4- GUTXITAN

5- INOIZ EZ



1- OSO ONA

2- ONA

3- HALA NOLAKOA

4- TXARRA

5- OSO TXARRA

	BETI	ASKOTAN	BATZUTAN	GUTXITAN	INOIZ EZ
TXIKI BARREN	45,5	18,3	11,6	5,4	4,5
KALEZULOTIK BASERRIRA	33	14,7	18,3	11,6	7,1
ZAHARRAK BERRI	32,1	14,7	21,4	8,5	8
KILI BARREN	30,8	14,3	18,8	8,5	12,5

	OSO ONA	ONA	HALA NOLAKOA	TXARRA	OSO TXARRA
TXIKI BARREN	28,6	47,8	1,8		
KALEZULOTIK BASERRIRA	17,9	49,1	4,5	1,8	0,4
ZAHARRAK BERRI	16,1	50,4	7,1		
KILI BARREN	12,9	50,4	6,3	0,9	0,4

TxikiBarren dugu gehien irakurtzen den gehigarria 2,16 batazbestekoaz, Kalezulotik baserrira 2,608, Zaharrak berri, 2,603, erdimailako postuetan eta, azkenik, eta sailkapenean oso nabaria KiliBarren, 2,74, dugu.

Badirudi TxikiBarrenek ere iritzi onena merezi duela 2,29 batazbestekoaz; Zaharrak berri gehigarriak betetzen du bigarren postua 2,66koaz eta kalezulotik baserrira 2,67koaz hirugarrena. KiliBarren dugu berriro azken postuan 2,84arekin. Beraz, TxikiBarrenen eta KiliBarrenen sailkapena argi daude, Kalezulotik baserrira eta Zaharrak berri, ostera oso parekatuak daude.

Orohar esan behar da gehigarriak atalak baino gutxiago irakurtzen direla, honela gehien irakurtzen den atalak 1,30ko batzbestekoa bazuen gehigarrien kasuan 2,16koa dute, ia punto batetako diferentzia, beraz. Hau da, gehien irakurritako gehigarria "askotan" eta "batzutan" bitarte horretan sailka dezakegu.

Gehigarrien iritzia ere atalena baino txarragoa da, atalen lehen postuak 1,81eko batzbestekoa du, gehigarrienak ordea 2,29koa, hauen arteko aldea ez bada ere hain nabaria.

4.1.5.- ASTEKARIAREN IRUDIA

Astekariaren irudia ona dela dio jendeak; 93,3ri gustatzen zaio astekariaren formatoa.

Maketazioari buruz, erdiak baino gehiagok oso ona dela dio. Ona dela diotenak berriz %37,9a direlarik eta %9,9ak ona baino hobea dela diote.

Argazkiei buruzko iritzia ere ona da, baina ez maketazioa bezain ona. Gehiengoak %51,3k dio argazkiak onak direla eta %36,6ak oso onak direla.

Azpimarratzekoa da inork ez duela "txarrak" edo "oso txarrak" aukerak hautatu, astekariaren itxuraz ari garenean.

4.1.6.- INFORMAZIO LOKALA

Astekari honen funtzio bat, egunkariak betetzen ez duen hutsunea betetzera datorrenez, egunkarien azterketa egin nahi izan dugu.

Elgoibarren gehien irakurtzen den egunkaria El Diario Vasco da, populazioaren erdiak baino gehiagok %63,8 egiten duelarik. Beste egunkariak irakurle kopuru antzerakoa daukate eta bat nabarmentzekotan Egin da hauen artean irakurriena %8,5ak irakurtzen duelarik.

Irakurle hauetatik erdiak, %15,8ak, egunero erosten du egunkaria baina asteburuetakoa irakurleak gehiago dira, alegia, %20,1. Gehienetan irakurtzen dutenak %12,1 dira, eta beste aukerak ez dira kontuan hartzekoak.

Egunkarian atalik irakurrienak kirola eta Elgoibarko karta ditugu.

Elgoibarko gaiei ematen zaien hutsunea eta garrantzia jakin nahi izan da jendearen ahotik. Irakurlearen erdiak uste du irakurtzen duen egunkariak informazio "gutxi" ematen duela Elgoibarko gaietaz, eta %21,4ak aldiz "zertxobait" baino ez duela ematen.

Egunkariak Elgoibarko gaietaz informazio gutxi emateaz gain, informazio hori hala-nolakoa dela uste du %47,8ak. Ona dela %24ak dio.

Beraz, jendeak gehien irakurtzen duena Elgoibarko karta dela kontutan harturik, esan behar da El Diario Vasco dela egunkaririk irakurriena. Informazio lokalaren hedadura ez da oso zabala eta informazioaren trataera ez da ontzat jotzen.


Egunkarietatik aparte, eta euskal aldizkarietaz galdetzerakoan, %18,3ak bakarrik jasotzen du euskal aldizkariren bat. Hauen artean irakurrienak Jakin eta Arantzazu aldizkariak ditugu.

Azpimarratu behar da, euskal aldizkariak jasotzen dituzten irakurleak gutxiengo bat badira ere, hauen artean azpimultzo batek bizpahiru aldizkari jasotzen dituela. Oso kontzentratutako irakurle mota dugu beraz.

4.1.7.- EUSKARA

Astekari euskaldun baten azterketa egiterakoan, eta euskara hutsez dela kontutan izanik, hizkuntzaren egoera aztertu beharreko gaia da.


Lehenengo aztertu beharreko egoera irakurlegoaren euskara maila da.



- 1- %52,2 euskaldun zahar alfabetatugabea
- 2- %28,1 euskaldun zahar alfabetatua
- 3- %5,8 euskaldun berria
- 4- %4,9 ia euskalduna
- 5- %2,7 erdalduna
- 6- %5,8 Missing values

Emaitzak dio irakurlegoaren erdia baino gehiago euskaldun zahar alfabetatugabea dela, herena euskaldun zahar alfabetatua, eta gainontzeko portzentai txikia, euskaldun berri, ia euskaldun eta erdaldunen artean banatzen da.


Kontutan izanda gehiengoa euskaraz alfabetatugabea dela, irakurleak dituen zailtasunak neurtu dira, bi ikuspegi desberdinetatik ikusita, bata irakurleak bere aldetik dituen zailtasunak eta bestea irakurgaiak berak dituenak.



%43,8ak dio ez duela inongo zailtasunik euskaraz irakurtzeko, eta %16,1ak zailtasun gutxi du. Askok dituztela aitortzen dutenak %15,2 bakarrik dira.

Irakurgaiaren ikuspegitik ikusita zailtasunik ez dutela diotenak %50a dira eta gutxi dituztenak %14,3. Astekaria irakurtzeko zailtasun asko dituztenak %8a besterik ez dira.

Beraz, ikuspegi biak alderatuz, hauxe da atera daitekeen ondorioa: BARREN irakurterreza dela. BARREN denean euskal irakurgaiaren errezago irakurtzen da beste edozein irakurgai baino.



Jlren aproba egin ezkeru, irakurlegoaren euskara mailak eragin handia du irakurgaiaren aurkitzen dituzten sailtasun mailekin.

Euskara-maila eta irakurgaiaren zailtasunak gurutzatu ezkeru ikusten dugun multzorik handiena euskaldun zahar alfabetatugabeena da. Kontraesan bat badirudi ere euskaldun zahar alfabetatuak zailtasun gehiago ikusten dituzte irakurgaiaren alfabetatugabeak baino. Azken hauetatik gehienek zailtasun batzuk dituztela diote.

Beraz, euskaldun zahar alfabetatu gabeak zailtasun gutxiago aurkitzen dituzte irakurgaiaren aldetik euskaldun zahar alfabetatuak baino.

Irakurleen artean %47,8ak nahiago du elgoibartarrez idatzia izatea eta %31,3ak batuaz.

Honen arrazoia irakurle gehiengoa euskaldun zahar alfabetatugabea dela izan daiteke.


Talde barneko azterketan, euskaldun zahar alfabetatua eta alfabetatugabeak nahiago dute elgibartarrez idatzia izatea. Besteek nahiago dute batuaz izatea.

Beraz, aurreko hipotesia ez da betetzen, euskaldun zahar izateak eragiten du elgoibartarrez idaztea eskatzeak eta ez euskaldun zahar alfabetatugabeak bakarrik.

4.1.8.- FINANTZIAZIOA


BARREN dohako astekaria denez, jendeak *BARREN* nola finantziatzen den ote dakien nahi izan da jakin.

Erantzun gehienek udaletxea eta publizitatea aipatzen dute. Udalak zenbateko diru laguntza eman beharko zukeen galdetzerakoan, hona hemen zer erantzun duten:



Aukera hautatuenak, %29,5ak, dio udalak astekaria osorik finantziatu beharko lukeela, eta oro har %80,4k udaletxeak %50 baino gehiago finantziatu beharko lukeela uste du.

Hala ere irakurlegoa prest legoke, maila handi batean %83,9a, BARREN dirutruk hartzera. Urtero ordaintzeko prest egongo litzatekeen diru-kopurua oso sakabanatua dago.



X2 probaz ikusi da zeintzu diren, zenbat diru ordaintzeko eragiten dituzten baldintzak.

Adina da ordainketan eragiten duen lehen aldagaia. Talde arteko desberdintasunak nabari dira. 16-30 eta 30-45 bitartekoak dira gehien ordaintzeko prest daudenak, gutxien ordea < - 15koak eta > - 60koak.

Eragina duen bigarren aldagaia lan iharduera da. Langile kualifikatuak dira ordaintzeko prestuenak, batz-beste 2.000-3.000 ordainduko luketelarik; hurrengoak langile autonomoak dira. Eta azkenik langabezia daudenak.

4.1.9.- NEUTRALITASUNA

Herri osoari zuzendua dagoen astekari honen neutraltasuna neurtu izan denean, %74,1k ez dio inongo lotura politikorik ikusten. Inpartziala dela gehiengo batek uste badu ere, %8ak ordea alderdi batzurekin lotura ikusten dio. Baiezkoa eman dutenen artean, lotura EAJ alderdiarekin ikusten dute.

4.1.10.- PUBLIZITATEA

Publizitateak astekariaren presupuestoaren %30 betetzen duenez, jendeak eskaintzen dion arreta kontutan hartzekoa da.

%32,1ek irakurri egiten duela dio, %45,5ak gainbegiratu eta %15,4ak ez du irakurtzen.

Beraz %77,6ak publizitateari gainbegiratu bat baino gehiago ematen diola dio.

Emaitza baikor hauek kontrastatzeko, astekarian agertutako 4 iragarkien izenak emateko gai ziren eskatu zitzaizkien. Erantzun maila oso altua izan da eta erantzun dutenen artean gehiengoak 4 iragarkiren izenak eman ditu.

Iragarkiren baten mezua gogoratzeko eskatu izan zaienean berriz, hiru pertsonak baino ez dute esan mezua.

BARREN astekariak eskeintzen duen aportazio nagusiaz galdetu izan zaionean irakurlegoari, hiru izan dira erantzunik emanenak:

- Informazio-eskaintza*
- Euskaraz irakurtzeko aukera ematea*
- Euskara bultzatzea*

Elgoibarri buruzko informazioa ematea izan da gehiengoak esan duena. Beraz informazio lokalak, duen tratamendu eskasa dela eta BARREN hutsune hori betzera datorrela.

Bukatzeko, atalen bat edota gairen bat indartu edo arinduko luketen galdetu zaie.

Erantzunak oso ezberdinak izan dira, agian errepikatzen den bakarra Txokorik Txokoren kasua da. Batzuk kentzeko dioten artean beste batzu atal hori indartzearen alde agertu dira.

Bitxikeri modura esan zein gauza indartzea eskatu den: txisteak, argazkiak koloretan, sukaldeko errezetak, gazteak, udal plenoak, abestiak eta abar luze bat.

Astekaria arintzeaz ari garenean, esan, atal sakonenak "erreportaia", "zenbat buru hainbat aburu", "enpresetatik bueltan", arintzeko eskatu dutela. Ataletan eman duten emaitzekin bat datozela.

4.2.- MENDAROKO INKESTA ETA BARREN JASOTZEN EZ DUTENEN INKESTA

Mendaroko inkesta oinarriz BARREN irakurtzen dutenen inkesta berbera da laupabost galdera aldatuta. Honek konparaketa bat egiteko aukera ematen du.

Esan behar dut proportzionalki etxe bakoitzeko euskaldunen kopurua Mendaron Elgoibarkoa baino handiagoa dela batz-beste etxeakoak 3,8 badira, 3,6 euskaldunak dira, baina irakurleen kopurua Elgoibarkoen antzerakoa dugu: 3,2.

Mendaroko populazioaz zerbait aipatzerakoan, esan dezagun emakumezkoen kopurua Elgoibarkoa baino handiagoa dela, %57,1, gizonezkoak %38,1 diren artean. Adinari dagokionez biztanleria zaharragoa dugu. Beste datuak berdintsuak dira.

BARREN orokorrean hartuta, Mendarotarren iritzia hobea da elgoibartarrena baino, eta azken hauek baino gehiago irakurtzen dutela diote.

Atalez atal ere, Mendarotarrek maizago irakurtzen dute eta beraien iritzia hobea da.

GEHIEN IRAKURRITAKO ATALAK	GUTXIEN IRAKURRITAKO ATALAK
ERRETRATU ZAHARRA	UDALETXETIK UDALERRIRA
ETA ZURE USTEZ	ASTEAN ZEHAR
BATA ALA BEST4EA	ENPRESETATIK BUELTAN
KIROLA	ASTE HONETAN
KULTURA	BERTSOTAN

IRITZIA HOBEA DUTEN ATALAK	IRITZI TXARRENEKO ATALAK
ERRETRATU ZHARRA	TXOKORIK TXOKO
ETA ZURE USTEZ	UDALETXETIK UDALERRIRA
KIROLA	BERTSOTAN
BATA ALA BESTEA	ASTE HONETAN
GALDERAK, KEXAK ETA TXALOAK	ASTEAN ZEHAR

Gehigarri gustokoena, KiliBarren da Mendarokoentzat.

Euskararen mailari dagokionez, gehien ematen den kasua euskaldun zahar alfabetatua da, %81; euskaldun berria %4,8 eta ia euskalduna %4,8.

Euskaraz irakurtzeko dauzkaten zailtasunak aztertuz gero, Elgoibarko kasu bera ematen da: zailtasunak askoz gutxiago dira irakurgai BARREN baldin bada. Beraz, gehigarriak baino errazago irakurtzen dute aldizkaria bera.

Prentsa lokalak, herriko gaiei buruz albiste gutxi ematen duela eta bere kalitatea hala nolakoa dela uste da. Hemen ere egunkaririk erosiena El Diario Vasco dugu.

Dohainik ez balitz %47ak dio erosiko zukeela BARREN eta Mendaroko Udalak %25ko diru laguntza eman beharko lukeela.

Gehiengoak BARREN astekaria neutrala ikusten du; joera politiko zehatzik gabekoa.

BARREN jasotzen ez dutenei 20 inkesta pasatu zaienez, estatistikoki ezin da konfidantza maila handirik eman. Hala ere, biztanleriaren multzotxo honek zenbait argibide eman diezaguke.

Euskaraz irakurtzeko zailtasunik dituzten galdetzerakoan, gehiengoak badituela dio, zailtasunik ez dituztela azaltzen duen kopuru bat baldin badago ere.

BARREN gazteleraz izango balitz jasoko al zuketena itaunduz gero, ia denek baietza ematen dute. Beraz, esan daiteke BARREN ez jasotzearen arrazoi nagusia euskara ez ezagutzea dela.

Azpimarratzekoa dena zera da: BARREN jasotzen ez badute ere denok uste dutela udaletxeak %50etik gorako portzentai batean finantziatu beharko lukeela BARREN.

Egunkariei dagokionez, hauen artean ere nagusi den egunkaria "El Diario Vasco" dugu.

Ez diote BARRENi inongo lotura politikorik ikusten; guztiz neutrala

dela uste dute astekaria.

*Ondorioz, ez da somatzen jarrera ezkorrik astekariarenganako.
Badirudi muga edo arazo bakarra badirudi hizkuntza dela.*

*Bitxikeri modura esan dezagun inkesta hau pasa zaien batzuk
BARREN jasotzeko eskaera egin dutela nagikeria edo utzikeri izan da
hauentzat BARREN ez jasotzeko arrazoia.*

5.- IDEIA NAGUSIEN BILDUMA

Euskal Herriko aldizkariak ugalketa prozesu bat pairatzen ari dira. Euskal herrian argitaratzen diren ehundik gorako herri aldizkariak herena euskara hutsez egiten dira.

Euskara hutsez ateratzen diren 36 aldizkaritik, 19 gipuzkoarrak ditugu, 9 bizkaitarrak eta 3 arabarrak.

Herri aldizkari hauen zabalkunde eremua herria bera edo bailarak dira. Azpaldiko bi herri aldizkari baditugu ere, NONDIK (Ataun, duela 17 urte sortua), TTIPI-TTAPA (duela 12 urte sortua) beste guztiak azken hamarkadakoak dira. Ugalketa prozesu honen aintzindari Arrasateko, ARRASATE PRESS dugu. Arrasaten euskararen normalizazioan izan ziren aurrera pausuak, euskal herri aldizkari eta telebista sortuz, kontutan hartzekoak izan dira beste herri askorentzat. Beste herri aldizkariak bere proiektuak egiterakoan, Arrasate Press izan dute oinarri edo gutxienez adibide.

Herri aldizkariak argitaratzen dituzten herrien biztanleriaren kopurua aztertuz, atera daitekeen ondorioa da, kopuruak ez duela zerikusirik. Horrela, 194.000ko biztanleria duen Gasteiz aurkitzen da zein 233 biztanle dituen Zerain herria. Beraz, herri aldizkari bat kaleratzeko orduan, biztanleriak ez du kopuru zehatz bat baino gorako baldintzarik bete behar ezta euskaldun balizko irakurle portzentai

zehatzik eduki behar ere. Hala, herri euskaldun peto askok herri aldizkariak dituzte eta beste askotan euskaldunen portzentaia oso murrizta bada ere, badira.

Helburu bateragarriak ez dutela esan genezake, herri aldizkarien kaleratzeak gauza desberdinak dituzte jomuga.

Lehenik egin beharko genukeen galdera zera da, nori zuzendutakoak diren herri aldizkari hauek. Badaude kasuak euskaltzale gutxi batzuei zuzendutakoak direnak inguruak baldintzatzen duelako beste batzutan helburua euskara ahalik eta txoko gehienetara hel dadin saiatzeko da, euskaraz irakurtzeko aukera esparru zabalagoetara eramatea, euskara komunikabide medio bihurtzeko da.

Herri aldizkarietaz ari garenean, Euskal Herri mailan, hiru tipologia desberdinekin egiten dugu topo:

- Publizitateari esker dirua irabazteko sortu diren aldizkariak, erdara hutsean. Udalek informazio zerbitzu gisara argitaratzen dituztenak, bi hizkuntzak erabili arren gaztelera da nagusi. Eta azkenik euskaldun irakurle potentzial bat dagoen herrietan argitaratutakoa, euskara hutsean.

Azken hauek herriari buruzko informazio orokorra eskaintzen dute Hizkuntz komunitate bategatik baldintzatuak. Hizkuntzaren bultzatzaile bilakatu dira eta ez lukruzko enpresa.

Aldizkari hauen doantasuna da ezaugarri azpimarragarri bat. Doantasun honen zergaiti bat edo helburua da, herri aldizkari hauek esparru zabalagotara iristen saiatzen direla, hau da euskaraz irakurtzeko gai den baino inoiz irakurri ez duengana iristea.

Honez gain, marginala ez den produktua egiten saiatzen da, hau da herri mailan ohiartzuna izango duen produktua lortzea eta honek instituzioen inplizizazio bat suposatu behar du.

Inplikazio hau bikoitza behar du izan; alde batetik euskarari bidea ematen dion egitura eraikitzea, euskara saila. Eta beste alde batetik diru iturri bilakatu.

Euskarazko herri aldizkariak diru iturriei dagokionez erabilitako formula -publizitatea eta dirulaguntza instituzionala da. Portzentaiak aldagarriak badira ere, normalean aurrekontuen %50a baino gehiago dirulaguntza instituzionalak betetzen du. Beraz diru honenganako menpekotasuna oso ageria da. Autofinantziaketako aldizkari bakarra, iparraldeko Herria dugu bakarra. Nabaria da bera, herri aldizkari mota hau erosteko ohiturarik ez dagoela.

Doantasuna galdu ezkerro, herri aldizkari hauek bizitza esperantza labur bat izan dezakete. Instituzioen egoera ekonomikoa dela eta aurrekontuen murrizketa litekeena da herri aldizkari hauek zintzilik dauden haria moztuta suertatu daiteke, beraien finantziazioa porrot eginez. Inkesten emaitzek diotena-diotela, jendeak erosten segiko duela

badio ere, arlo honetan ezin naiteke baikor agertu. Badirudi, aldizkari hauen arrakasta doantasanaren menpeko zerbait dugula. Euskera, inkontzienteki, kulturakin bakarrik parekatzen dugu, eta noski badirudi kulturaz instituzioak baino ez direla arduratu behar.

Herri aldizkarien maiztasunak ere garrantzia duen arazoa da. Maiztasunak aldizkariaren eragina mugatu edo indartzen du. Euskarazko herri aldizkariak hautatutako aukerarik sarriena hilabetekaria da. Hala ere badirudi abiadura azkarragoko aldizkariak nagusitzen ari direla. Gutxienez, azken urteotan sortutakoak eta Arrasate Press fenomenoaren kontagioaz astekariak dira nagusitzen. Honen arrazoa izan liteke, herrian eragina eta ohiartzuna duen aldizkaria bihurtzeko astero-astero kalean dagoen produktua izan behar dela. Jendearengan irakurketa hau ohitura bilakatzeko era bakarra. Egoera honetako astekariak; Berrigarra, ...eta Kitto eta elgoiBARREN ditugu.

Doantasuna eta maiztasuna nahitaezkoak diren artean, badirudi badagoela betebeharreko beste baldintzarik eta hau banaketa sistema dugu. Aldizkaria eskuratzea ahalik eta errazena izan behar du, arrazoi honegaitik etxez-etxe bururako banaketa da gehien emandako kasua. Postaz bidaltzea ere bide arrunta da edo eta herriko zenbait tokitan sakabantzea.

Beraz aldizkaren harrera adierazgarria, azken bolada honetan, adierazgarria izaten ari bada ere. Badirudi euskarazko herri aldizkarien arrakasta, oso baldintzatua dagoela. Doantasuna eta eskura erraza

izatea behar-beharrezko kondizioak direlarik.

Euskarazko herri aldizkarien ezaugarri ezberdingarriak:

HELBURUA, maila desberdinetan eta irakurlego mota desberdinei zuzendua baina euskararen normalizazio bideari ekitea dute helburu.

ESPARRUA, aldizkari hauen zabalkunde eremua beste aldizkari motena baino txikiagoa da herri edo edozein kasutan bailara.

BITARTEKOAK, aldizkari hauek plazaratzea ekite zuzena dugu bitartekari gabekoa, dirua irabaztea ez bait dute helburu. Enpresa moduko antolakuntz berri bat gehitzen ari bada ere, baliabide informatikoetan oinarritutakoa, ez dira lukrozko enpresa motak. Baina esan beharra dago, oraindik instituzioekiko finantziazio menpekotasuna oso handia bada ere, enpresa moduko antolakuntza izateko beregituraketa lanak gutxienez forma hartzen badoazela.

Euskarazko herri aldizkari hauen estiloa eta edukia beste aldizkariak direnetik asko aldentzen direla esan ahal da. Informazioaren urbiltasuna oso faktore garrantzitsua da. Egunkariak herriko kartak eskeintzen duen informazioa eskasa izateaz gain, behin eta berriz albiste berberak errepikatzen dira. Herri aldizkariak pilpilean dauden gaiak kaleratzen ditu, irakurritako albisteak ezagunak dira, ilustratuak eta irakurlegoak parte hartzeko aukera duela jabetzen da. Irakurlea objektu izatetik, sujetu bilakatzen da, bai informazio iturri delako bai

bertan parte hartu dezakelako. Komunitate kontzientzidun bat sortzeko potentzialitatea suertatzen da.

Letra tamaina, hutsune zuriak, aldizkariaren tonua eta batez ere erabilitako euskara erraza izan dadila.

Publizitatea, diru iturri handia da aldizkari hauetan, argitaratzea posible egiten duen heinean, herri mailako komertzilaei publizitatea egiteko aukera ematen zaie. Bere bezeroak, herriko jendea denez, publizitatea faktore honetara egokitzen da, hau da herri mailako publizitatera.

Elgoibar, 11.639 biztanleko herri dugu, hauetatik %60a euskalduna da. Beraz balizko irakurleen portzentaia esanguratsu batekoa. Euskarazko aldizkariak jasotzen zituztenak, ordea, %5 era ez ziren ailegatzen.

Bestalde egunkariak herriko kartan elgoibarrari eskeintzen dioten hutsunea oso murrizta da, gai berdinak errepikatuz.

Euskarazko herri aldizkari doan, euskuraterreza eta herriko gaiak jorratzen zituena, herritarrak protagonista eta informazio iturri bihurtuz badirudi posible dela.

BARREN astekariak Arrasate Press, Berrigara, eta ...eta Kitto hartu zituen adibie, astekaria sortzeko.

Euskarazko aldizkaria batzu euskaldunei bakarrik banatzen diete aldizkaria, erroldaren arabera eginiko aukeraketaz, ...eta Kitton jasua. BARRENEk ez du sistema hau erabili. Aldizkari neutroa, joera politikorik gabekoa, izan nahi duen aldizkari honek beste politika bat eraman du. Harpidedun izateko, norberak eman behar du izena astekarian bertan, honela diskriminazio posibleak ezeztatzen dira. Honekin batera, erroldan euskaldun bezala agertzen ez direnak eta ikasten ari edo saiatu nahi dutenei aukera eskaintzen zaie. Esparrua zabalduz doa, txoko guztietara heldu nahiean.

Badira kasuak, iñork etxean ustez euskara jakin gabe BARREN jasotzen duenik. Jadanik, BARRENEk bi urtetako ibilbidea burutu duenean bere buruko azterketa bat egitea beharreko uste du.

Azterketa hau burutzeko hiru inkesta desberdin pasatu dira. Lehenengoa eta lanaren muina dena BARRENEn irakurlegoari luzatu zaiona. Lagin honek %5,6 erroreaz eta %95 konfidantza maila batetako fidagarritasuna du. Proporzional lagin geruzatua zonaldea, sexua eta adinaren araberkoa. Azterketa hau etxeen arabera eginda, etxe bakoitzeko barren bat jasotzen bait da.

Beste bi inkestek, estadistikoki ez dute fidagarritasunik baina kontrajarren izan daitezke. Lehenengoa, Mendarokoa da. BARRENEk atalez aparte lau gehigarri ditu, bata mendaro buruzkoa eta haien eritzia, desberdintasunik zuen jakiteko beste inkesta hau pasatu da. Azkenik Elgoibarren bizi eta BARREN jasotzen ez dutenei beste bat

pasatu zaie. Jasotze ezaren zergaitia zein den jakin nahian eta arlo batzutan erizpidea anterakoa edo desberdina duten jakiteko. Lehenegoan bezala, emaitzak alderatu ahal izateko, azterketa etxean araberakoa da.

BARRENen irakurleei igorritako galderen ermaitez hau esan dezaket:

Bataz beste etxe bakoitzeko 4 pertsona bizi dira, hauetatik 3 euskaldunak dira eta euskaldun agertzen diren denak BARREN irakurtzen dutela diote. Beraz BARREN jasotzen duten etxeko euskaldunen portzentaien kopurua, elgoibarkoa baino altuagoa da. Elgoibarren euskaldunen kopurua %60a den artean, BARREN irakurlegoaren %75a da euskalduna.

Honez gain, esan daiteke euskaldun izateak edo ezak mugatzen duela irakurketa, badirudi nahiz eta etxean BARREN jaso eta senitartekoak euskaldunak izan, bere burua euskalduntzat agertu ez duenak ez duela BARREN irakurtzen. Beraz etxeko euskal giroak ez du euskaldun ezarengan irakurketa zaletasuna pizten.

%52 batekin emakumezkoak irakurtzen du BARREN baina ezin da esan ezberdintasuna gizonezkoekin adierazgarria denik.

Adinaren distribuzioa, ordea esanguratzua da. Elgoibarko adinaren distribuzioa kontutan harturik eta adin talde desberdinen mediak, uste

dut esan genezakela, 16-30 eta 31-45 adin taldekoek direla BARREN gehien irakurtzen dutenak. Gero irakurlea nagusiagoa den heinean, irakurketa gutxitu egiten da. Zergaiti bat, BARRENek euskarazko herri aldizkari bat dela izan daiteke. Umeak ez ezik, adin hauetako jendea da euskaraz irakurtzeko ohitura eta erraztasun gehiago eduki dezaketenak. Hala ere, astekariaren edukia dela eta aintzinako kontuei eskeintzen zaion arretagaitik bazirudien pertsona helduak proportzioan egiten dutenen baino gehiago egingo zutela.

Irakurlegoaren ikasketa maila oro har, bataz beste elgoibarko biztanleriarena baino altuagoa da. Eskolarik ez eta lehen mailako ikasketak dituztenak poblazioaren mediaren baino portzentai txikiagoa, lanbide heziketan mediak parekatuak daude eta goimailako ikasketan BARRENen irakurlegoaren portzentaiak altuagoak dira.

Pertsona helduen kasua hartuta, eta euskaraz ez dakitenak asko kanpotarrak izan daitezkelakoan, ikasketa mailaren ezberdintasuna arrazoi honegaitik gerta daiteke. Ikasketa mailak irakurketaren zaletasunean eragin dezake, hortik irakurleak ikasketa maila hobea edukitzeak.

Irakurlegoa, beti elgoibarren bizi izan den pertsona dugu edo eta 20 urte baino gehiago bertan bizi dena. Datu honek informazioaren urretasunekin eduki dezake zerikusia. Betidanik herrian bizi den pertsonak astekariko gai eta informazio gehiena ezagutu ahal dezake aintzinako kontuak ezagunak egin eta guraso edo senitartekoekin

komunikazioa sorterazi.

Irakurlegoak, gertuko informazioa ematen dela uste du zegoen herri komunikabideen beharra aldi batean asetuz. Jendeari informazioa ezaguna egiten zaio eta honek jatorriaz eta bizilekuaz zerikusia handia duela uste dut. Aldizkaria, herrikoia bihurtuz.

Oro har, astekaria harrera onekoa da. Globalki itaunduz gero, gehienak beti irakurtzen duela dio eta eritzia OSO ONA eta ONA tartekoa. Orokorrean galdetzerakoan, jendearen astekariakiko ideia isladatzen du emaitzak, eta nadirudi benetan irakurtzen den baino gehiago egiten dela erantzutn duela jendeak.

Hau esan daiteke, bere eritzia neurtzen zaudela uste dezakelako, eta argitaratzea oso ondo deritzalako.

Badirudi irakurketa eta eritzia aldagai independenteengatik eraginda egon zitekela, honegatik X eta Analysis of variance probak ezin dira.

Aldagai hauetatik batzuk eritzian eragina dute baina ez irakurketaren maiztasunean. Sexua eta lan iharduera, banaka eragiten dute eritzia desberdinak izateko orduan.

Oro har ere, definizio global bat aukeratzeko esatean gutxik aukeratu dute txisme kontalaria dela edo denborapasa. Herriko

informatzailertzat jo dute astekaria. Bi lehenengo aukerak "konnotazio" ezkorrak suposatu litezkelako. Beraz irakurlegoarengan astekariak imagina ona duela errepikatzen da berriro, dela positiboa, alegia.

Atalez atal eginiko azterketan, atal bakoitzaren irakurketa maiztasuna eta eritzia jaso da, eramitz hauek landu ondoren ikusi dezakegu lehen postuak bai irakurketari dagokionez bai eritziari bi kasutan errepikatu egiten direla.

Tendentzia ikusiz, nabaria da lehen postuak betetzen dituzten atalek eta azkenengo postuak oso ageriak direla. Argi dago zeintzu diren 5 gustokoenak eta 5 ez gustokoenak, erdi mailako postuetan ordea ordena ez da hain argi ikusten, batetik bestera ez dago hainbeste alde, merezi duten eritzian eta irakurketan.

Lehenengo eta azkenengo postuez, korrelazioa da neurtu da atal baten irakurketaren maiztasun eta eritziarekin. Honekin ikusi nahi izan dena zera da: irakurketaren maiztasun mailak, atal horrek merezi duen azalpen indarra ehunekotan emanda.

Azalpen indarra postu hauetan altua da batz-beste %70. Beraz gehien irakurtzen diren atalak, eritzi ona izaten du %70 maila batean.

Ikusi izan da korrelazioa handiagoa dela, nabariak diren lehen eta azken postuetan. Honen zergaitia izan daiteke. Kasu nabarietan jendeak eritzia garbi daukalako eta irakurketaren maiztasunarekin bat

datorrela.

Atalik irakurrienak eta eritzi obeak dituztenak ezaugarri batzu betetzen dituztela esan ahal da, alegia: laburtasuna, informazioaren urbiltasun nabaria (argazkiak, kaleko jende ezaguna), sakondu gabeko albisteak.

Azken postuak betetzen dituzten atalak aldiz, gai sakonduak ditugu irakurketa silagokoak, arreta gehiago behar duten sailak.

Atalak irakurtzeko orduan aldagai indpenedienteak duten eragina ikusi da X eta Analysis of variance frogak egin ondoren.

Eragiten dutenak, ez atal guztietan, adina, egoera zibila eta lan iharduera dira. Hauetako azpimultzo bat bakoitzeko markatzen dute azberdintasuna. Adinaren kasuan, azpimultzo bitxi 0-15 adin tartekoak ditugu hauek mediak baino gutxiago irakurtzen dutelarik. Egoera zibilaz ari garenean, esan ezkongabeben taldea dela gehien irakurtzen dutenak eta azkenik lan iharduerari dagokionez, ikasleak dira irakurle sarrienak.

Beraz, hiru aldagaiak barnebilduz, sarrien irakurtzen duen irakurle tipologia posible bat egin ahal da. 0-15 adin taldekoa ez dena, ikasle, ezkongabea da gehien zen irakurtzen duenaren perfila.

Astekariak dituen 4 gehigarriak direla eta, esan, gustokoena Txiki

Barren dela eta ezgustokoena Kili Barren. Zaharrak Berri eta Kalezulotik Baserrira erdi mailako postuak betetzen dituzte.

Kontraesan baten aurrean aurkitu gaitezkeela uste dut, 0-15 adinataldekoek, gutxien irakurtzen duten taldea ikusi eta gero, arraroa da Txiki Barren izatea gehigarririk gustokoena, umeeri zuzendutako gehigarria bait dugu. Beraz, ondoriolez, esan behar Txiki Barrenen arrakasta, kalitatearen bidetik datorkigula eta ez gehigarri honen balizko irakurleengadik. Kili Barrenek azken postuak betetzeak normala deritzot, herri aldizkari batek bete beharko baldintza bat ez duelako betetzen, alegia; informazioaren hurbiltasuna. Elgoibarko biztanleria ez du bertan agertutako Mendaroko jendea ezagutzen.

Euskera, astekari honen hizkuntz medio denez, nahitaezkoa da bere azterketa. Euskera maila ikusiz gero, euskaldun zahar alfabetatu gabea da kasurik emanena eta gero euskaldun zahar alfabetatua.

Euskeraz irakurtzeko ohiturarik izan ez denez, irakurlegoa euskeraz irakurtzeko dituen sailtasunak neurtu dira. Honetarako banaketa bat egin da; alde batetik, irakurleak oro har euskeraz irakurtzeko dituen sailtasunak eta bestetik irakurgaiak, BARRENEk, agertzen dizkion sailtasunak.

Bi emaitzak alderatuz, atera daitekeen ondorioa, BARREN textu irakurterreza dugula, orokorrean sailtasun gehiago ikusten dute beste euskal irakurgaietan BARRENEk kasu konkretuan baino.

Jiren proba egin ondoren, euskera maila eta irakurgaiak agertzen zituen sailtasunekin, kontraesan posible batekin topo egiten dugu. Euskadun zahar alfabetatu gabe gehiengoak ez du sailtasun "batere" aurkitzen BARREN irakurtzerakoan eta euskaldun zahar alfabetatuak sailtasun "batzu" aurkitzen dituzte.

Honen arrazoi bat izan daiteke, alfabetatugabekoen kritikotasuna txikiagoa dela alfabetatuengan baino.

Irakurlegoak informazio lokala pobrea eta behin eta berriro errepikatzen dela uste du. Jendeak, herriko karta gehien irakurtzen duen atala izanik, herriko gaiei buruzko jakinmina azalduz, hau ez zaie batere egokia iruditzen. Hortaz BARREN medio aproposa dela hutsune hau betetzeko. Asetu gabe zegoen behar bat bete du BARRENEk, herriko informatzaile konpletuena bilakatuz.

Astekariaren finantziario formulak, doantasan egoera posible egiten du. Udaletxeak zenbateko diru laguntza eman beharko zukeen galdetzerakoan gehiengoak %50 gorako dirulaguntza eman beharko lukela dio.

Hala ere portzentai altu bat BARREN dirutruk jasotzeko prest agertzen da.

Hasiara batetik BARREN astekariak txoko guztietara heltzeko ideia edukita, eta gizartesail guztien oniritzia eman ziezaieten, politika

kutsurik gabeko astekaria egiten saiatu da. Hau dela eta beraien harpidetza politika. Helburu hauek bete egin direla esan daiteke, irakurlegoak ez dio joera politikorik ikusten BARRENi, astekari neutrotzat jo daitekela nahiko argi azaltzen dela.

BARREN jasotzen ez duen biztanleriak ere ez dio joera politikorik ikusten eta badirudi gazteleraz izango balitz astekaria azken hauek jasoko luketela. Beraz, ondorioez esan daiteke BARREN ez jasotzearen arrazoi nagusia hizkuntzaren oztopoa dela.

6.- ONDORIOAK

Irakurlegoaren ezaugarri batzuk aipatzekotan esan: euskaldunzahar alfabetatugabea, ikasketa maila biztanleriaren baino gorakoagoa, eta irakurle gaztea direla kasu emanenak.

Astekariak harrera ona du eta asetu gabe zegoen herri informatzailearen hutsunea bete du.

Atalik gogokoenak, atal arinak, sakondu gabekoak, argazkiez osatuak eta irakurterrazak dira. Ezgustokoenak ordea, gai zabal eta sakonduak.

Irakurle ez izateko zergaitia hizkuntza muga da. Ondo deritzaie Barren argitaratzea eta finantziazioa Udalaren ardurapean geratu behar dela uste dute.

7.- BIBLIOGRAFIA

- *Herri komunikabideei buruzko II jardunaldiak. Arko arrasateko komunikabideak. Arrasate 1993*
- *Elgoibarko azterketa soziolinguistikoa SIADECO, Elgoibarko Udalaren aginduz, 1993.*
- *Euskara eta Hezkuntza EUSTAT Gasteiz, 1993.*
- *Elgoibarren herri aldizkari bat sortzeko proiektua. Elgoibar, 1992*
- *JAKIN aldizkaria. Donostia, Martxoa-apirila 1992*
- *Soziolinguistika BAT aldizkaria. Euskal kulturaren batzarrea. Otsaila 1992.*
- *Biztanleriaren egitura. EUSTAT Gasteiz 1993.*

8.- AIPAMENAK

Lagun hauei nire eskerrak eman nahi dizkiet lana burutzen euren laguntza eskaintzeagatik.

- IOSUNE FERNANDEZ
- ALES ARRIETA
- IÑIGO LARREA
- PAKE GARCIA